

GARAPENERAKO
ESTRATEGIA POSITIBOEN
XV. JARDUNALDIAK

ESKUBIDEEN AURKAKO
OLATU ATZERAKOIAREN AURREAN:

ERRESISTENTZIA FEMINISTAK

2026ko urriaren 5a eta 6a
Bizkaia Aretoa
BILBAO



ESKUBIDEEN AURKAKO
OLATU ATZERAKOIAREN AURREAN:

ERRESISTENTZIA FEMINISTAK

Une honetan bizi ditugun eraldaketa sozial, politiko eta ekonomiko sakonek zalantzan jartzen dituzte demokrazia garaikideak eraikitzeko oinarri izan diren zenbait adostasun. Testuinguru askotan, tentsioak ikusten dira giza eskubideen, bizikidetza demokratikoaren eta berdintasun-printzipioen inguruan; aldi berean, emakumeei eta sexu-adierazpen eta identitate generiko desberdinak dituzten pertsonen bereziki eragiten dieten diskurtso baztertzailak aurrera egiten ari dira. Prozesu horiek dimentsio globala daukate eta, era berean, gure gizarte eta komunitate hurbilenetan ere eragina dute.

Mugimendu feministek erakutsi dute gaitasun handia daukatela eskubideetan aurrerapenak bultzatzeko, parte-hartze demokratikorako espazioak zabaltzeko eta desberdinkeria- eta diskriminazio-modu ugarien aurrean alternatibak eraikitzeko. Hala ere, munduko hainbat tokitan, gero eta erronka handiagoei egin behar diete aurre, eta erronka horiek agerian uzten dute lankidetzaren, ikaskuntzen trukea eta erantzun kolektiboen artikulazioa giza eskubideen ikuspegitik indartzeko beharra.





Garapenerako Estrategia Positiboen XV. Jardunaldiak azterketa partekatu horretan laguntzeko asmoz sortu dira eta, horretarako, erakunde publikoen, gizarte-erakundeen, akademiaren eta nazioarteko lankidetzako eragileen arteko hausnarketarako, elkarrizketarako eta trukerako gune bat sustatu nahi dute. Ikuspegi feminista eta global batetik, jardunaldiek jorratuko dituzte bai atzerakada demokratikoko eta eskubideak zalantzan jartzeko gaur egungo prozesuak azaltzen dituzten faktoreak, bai zenbait lurraldetatik erantzun eraldatzaileak bultzatzen ari diren esperientziak ere.

Topaketa honen helburuetako batzuk dira tokiko errealitateak eta errealitate globalak konektatzea, nazioarteko elkartasun-loturak indartzea eta ekintza instituzional, sozial eta komunitarioko tresna feministak ikusaraztea. Izan ere, gaur egungo erronken aurrean, ezinbestekoa da ezagutzak partekatzea, aliantzak eratzea eta berdintasunarekiko, justizia sozialarekiko eta giza eskubideen defentsarekiko konpromiso kolektiboa indartzea ahalbidetuko duten espazioak sortzea.

JARDUNALDIEN HELBURUAK:

- Demokraziaren eta emakumeen eta sexu-generoen disidentzien eskubideen atzerapenen mundu-testuingurua aztertzea, gizartearen eta erakundeen ikuspegitik.
- Tokiko eta mundu mailako errealitateak lotzea, nazioarteko elkartasuna eta giza eskubideen esparrua aukera eta lotura gisa hartuta, inplikaturako eragile guztiak nola interpelatzen eta konprometitzen dituzten ikusaraziz.
- Ekintza feministako nazioarteko tresnak —instituzionalak, sozialak eta komunitarioak— artikulatzea eskubideak atzeratzeko prozesuen aurrean.

PROGRAMA:

URRIAREN 5a, ASTELEHENA

18:00 - 18:20

JARDUNALDIEN AURKEZPEN INSTITUZIONALA

18:20 - 19:45

INAUGURAZIO-SAIOA. ELKARRIZKETAN ARI DIREN AHOTSAK (I)

Generoaren aurkako diskurtsoen eta praktiken nahiz korrante antidemokratikoen aurrerapenari eta eraginei buruzko nazioarteko azterketa konparatua

Diana Cardona. L'Associació de Drets Sexuals i Reproductius

Paloma Caravantes. CSIC – Madrid

Moderatzailea: **Ivania Cruz**. Giza eskubideen defendatzailea

URRIAREN 6a, ASTEARTEA

9:00 – 9:30

INSKRIPZIOAK

9:30 – 10:00

JARDUNALDIEN ETA ESPARRU TEORIKOAREN AURKEZPENA

10:00 – 11:30

ELKARRIZKETAN ARI DIREN AHOTSAK (II)

Ekintza politiko feminista eskubideen atzerakadaren eta generoaren aurkako diskurtsoen aurrean

Phumzile Mtetwa. JASS (Just Associates)

Elene Lopetegi. Bilgune Feminista

Chaimaa Boukharsa. Afrocolectiva

Moderatzailea: **Anita Hichaicoto**. África en Género

11:30 - 11:45

BERTSONDORIOAK

Aner Peritz eta Aissa Intxausti. Lanku Bertso Zerbitzuak

11:45 - 12:15

KAFEA

Amillena. Arrazolako Benta



12:15 - 13:45

ELKARRIZKETAN ARI DIREN AHOTSAK (III)

Erresistentzia feministak berrarmatze- eta bizitzaren militarizazio-garaian

Sandra Barreto. LIMPAL Colombia

Ghadir Shafie. Activista y estratega palestina

Moderatzailea: Konfirmatzeke

13:45 - 14:00

BERTSONDORIOAK

Aner Peritz eta Aissa Intxausti. Lanku Bertso Zerbitzuak

14:00 - 14:15

JARDUNALDIEN AMAIERA

14:30 - 15:30

BAZKARIA

Amillena. Arrazolako Benta

15:30 - 17:30

ALDI BEREKO TAILERRAK: ESTRATEGIAK MARTXAN

1. TAILERRA

Gorroto arrazista ez da nazien kontua soilik

Tatiana Romero

2. TAILERRA

Eskubideen aurkako diskurtsoei aurre egiteko tresnak

Greta Frankenfeld. Calala Fondo de Mujeres

3. TAILERRA

Incelak, gymbroak, kriptobroak eta beste espezie antifeminista batzuk

Nuria Alabao

4. TAILERRA

Internet berrarmatzeko narratiba feministak eta estrategia digitalak

Itzel Plascencia. Colectivo Luchadoras



Nazioarteko lankidetzaren eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren eremuan lan egiten duten eragileak: GGKEak, erakunde publikoak, ikerketa-zentroak eta unibertsitateak.



Emakumeen elkarteak eta elkarte feministak.



Proposatutako gaietan eta eztabaidetan interesa duten pertsonak.



IZENA EMATEA:

Izena emateko azken eguna:

2026KO IRAILAREN 28A, ASTELEHENA, 11:00ETAN

<https://forms.gle/j36TC3UeJePrnWmh9>



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

